



Juan María Barasorda Goicoechea
Funtzio Publikoko zuzendaria
Funtzio Publikoko Sailburuordetza
Herri Administrazio eta Justizia Saila

Jaun hori,

Euskal Enplegu Publikoaren Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan irailaren 10ean, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Enplegu Publikoaren Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du toki-araubidean eta autonomia erkidegoko zein toki-administrazioetako funtzionarioen estatutuari dagokionez, betiere Konstituzioan finkatutakoari kalterik egin gabe (10.4 artikulua).

Eskumen horren babesean, Euskal Enplegu Publikoaren Lege Aurreproiektua izapidetzen ari da.

Bestalde, kontuan hartzekoa da estatu mailako apirilaren 12ko 7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartu zuena.

Aurreproiektuko zioen azalpenaren ondoren, atariko tituluan xedapen orokorrak jasotzen dira (1-7 artikulua), I. tituluan euskal enplegu publikoko organoak eta dituzten eskumenak arautzen dira (8-22 artikulua), II. tituluan euskal administrazio publikoetako langileak (23-27 artikulua), III. tituluan zuzendaritza funtzioa eta zuzendaritzako langileen estatutua euskal administrazio publikoetan (28-36 artikulua), IV. tituluan enplegu publikoaren antolaketa eta egitura (37-62 artikulua), V. tituluan funtzionario bihurtzea eta funtzionario izateari uztea (63-75 artikulua), VI. tituluan euskal sektore publikoko enpleguak hautatzea eta prestatzea (76-84 artikulua), VII. tituluan karrera profesionala (85-93 artikulua), VIII. tituluan lanpostuak hornitzea eta mugigarritasuna (94-119 artikulua), IX. tituluan ordainsari-sistema euskal enplegu publikoan (120-136 artikulua), X. tituluan Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionario publikoen administrazio egoerak (137-161 artikulua), XI. tituluan euskal langile publikoen eskubideak, betebeharrak, jokabide araua eta bateraezintasunak (162-174 artikulua), XII. tituluan diziplina araubidea (175-189 artikulua), XIII. tituluan hizkuntza normalizazioa (190-193 artikulua), eta XIV. tituluan euskal administrazio publikoetako negoziazio kolektiboa (194-202 artikulua). Azkenik, hogeita hamar xedapen gehigarri, hogeita xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea, lau azken xedapen eta eranskina daude, azken honek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko funtzionarioen antolamendu profesionala jorratuz.

Orobat, Aurreproiektuaren xedapen indargabetzailearen eraginez indarrrik gabe geratuko dira Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeke otsailaren 25eko 1/2004 Legea, gehi lege berriaren aurka doan maila bereko edo apalagoko beste edozein xedapen.

Hasierako oharra. Aurreproiektuaren 3. artikuluan aplikazio-eremua zedarritzen da, legea Euskal Sektore Publikoko langileei aplikatuko zaiela xedatuz lehenengo paragrafoan, eta euskal sektore publikoa zein den zehaztuz bigarrenean. Horrela, euskal sektore publikoan sartzen dira adibidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, haren Administrazio Instituzionalak eta gainerako erakunde instrumentalak, haren menpe daudenak eta nortasun juridiko propioa dutenak. Artikuluaren hirugarren paragrafoan jasotzen denez, legean zehar euskal administrazio publikoak aipatzen direnean, bigarren paragrafoan azaltzen diren administrazio, erakunde eta organoak aipatzen direla ulertuko da.

Berrikuntza bat dago beraz 3. artikuluan horretan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen aldean, azken honen 2. artikuluan eragin eremua arautzen baita, bertan herri administrazioak eta erakunde autonomoak aipatuz nagusiki. Aldiz, Aurreproiektuaren 3. artikuluan barruan sartzen dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta berezko nortasun juridikoa duten partzuergoak, aintzat hartzen badugu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 7.4 artikulua (Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak emandako idazketan) egiten duen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren definizioa.

Gauzak horrela, legearen eragin eremuko langileei hizkuntza normalizazioari buruzko XIII. titulua aplikatuko zaie, eta hortaz, erakunde eta organo horietan ere ezarri beharko da hizkuntza eskakizunen sistema, euren mendeko lanpostuetan hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezarri beharko dira, herri administrazioetan eta erakunde autonomoetan orain arte egin den bezala. Izan ere, orain arte hizkuntza eskakizunen sistema ez da baltzu publikoetan eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan aplikatu, azken hauen artean salbuespen bakan batzuk badauden arren.

Oso berrikuntza positiboa da gure ustez, hizkuntza politikaren ikuspegitik zentzuzkoa baita baliabide publikoen laguntzaz aritzen diren edozein motatako erakundeek bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu behar izatea herritarrekiko harremanetan. Zentzu honetan, Lege Aurreproiektuaren XIII. tituluaren aurreikusitako euskararen erabilera normalizatzeko planak eta hizkuntza eskakizunen sistema bitartekoak dira bi hizkuntzen erabilera bermatzeko.

Era berean, Aurreproiektuaren 7. artikuluan aplikazio-eremu berezia arautzen da, esanez 3. artikuluko aplikazio eremuan egon ez arren, autonomia-erkidegoko edota foru- edo toki-mailako sektore publikoko erakundeetan zerbitzuak betetzen dituzten langileei aplikatuko zaiela legea, baldin eta, zuzenean edo zeharka, administrazio publikoek jartzen badute erakunde horien kapitalaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago. Orobat, beren beregi adierazten da langile hauei hizkuntza normalizazioari buruzko XIII. titulua aplikatuko zaiela. Hau ere, oso berrikuntza positibotzat jotzen dugu, hizkuntza politikaren ikuspegitik.

Bestalde, aztergai dugun Lege Aurreproiektuaren testuan hizkuntza aipamen ugari daude:

-1. Zioen azalpeneko XVI. atalean adierazten denez, *“legearen XIII. tituluak gai inportantea jorratzen du: hizkuntza-normalizazioa euskal enplegu publikoan. Gai honetan, aurreko legegileak bere garaian ezarri zituen printzipio eta adierazpenei jarraitu zaie legea, baina bere aurreikuspenak arau-testuinguru berrira egokituta, orobat indarrean dagoen oinarritzko legeriaren ondoriozko eskakizunetara. Euskal administrazio publikoen apustua da zerbitzuak euskaraz eman eta eginkizunak euskaraz garatuko dituen administrazioa eratzea, gazteleraz egiten duen bezala. Horrek, dena den, helburu jarraitzen du izaten, baina planteatu zenean, 1989an, baino eskuragarriago, aurrerapenak eta zehaztapenak egon direlako, zalantzarik gabe, gobernu-maila guztietan. Hala ere, bide luzea egin behar da oraindik, kasu batzuetan, eta lege honen asmoa da bere garaian hasitako ahaleginari ekitea: euskal herritarrei Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan zerbitzatzea, berdin-berdin.”*

Testu horretan, “gazteleraz” hitzaren ordez, “gaztelaniaz” jasotzea egokiagoa izango litzateke, kontuan hartuta Autonomia Estatutuak (6. artikulua), Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legeak eta hizkuntza araudiak oro har, eta aztergai dugun Aurreproiektuak berak 190. artikuluan, *gaztelania* izendatzen dutela Euskal Autonomia Erkidegoan euskararekin batera ofiziala den hizkuntza.

-2. Zioen azalpeneko XVIII. atalaren seigarren paragrafoan iragartzen denez, xedapen iragankorretan jorratzen diren gaien artean dago *“hizkuntza-eskakizuna egiaztatzetik salbuestea adinarengatik”*.

-3. Aurreproiektuaren 19.2.b) artikuluan xedatzen denez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eskumenekoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari enplegatu publikoei dagokienez, lanposturako prestakuntza, hizkuntza-prestakuntza barne.

Aurreikuspen hori moldatu behar da gure ustez, txosten honen 20. atalean proposatzen dugun 192bis artikulua berriaren edukiarekin bateragarria izan dadin, han Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) esku uzten baita euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileen hizkuntza-gaitasunari dagozkion beharrezko asetzeko ardura. Hortaz, 19.2.b) artikulua honela uzteko proposatzen dugu:

“b) Lanposturako prestakuntza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza barne, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta haren organo autonomoen zerbitzura lan egiten duten pertsonen lan-ibilbiderako prestakuntza, betiere lege honen 192bis artikuluan HABEri esleitzen zaizkion eskumenak kaltetu gabe.”

“b) La formación para el puesto de trabajo, incluida la formación en materia de igualdad de mujeres y hombres y la formación para la carrera profesional del personal al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, sin perjuicio de las competencias atribuidas a HABE en el artículo 192bis de la presente ley”

-4. Aurreproiektuaren 19.2.c) artikulua arabera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagokio *“euskal administrazio publiko guztietako langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztapenez arduratzea”*.

-5. Aurreproiektuaren 33.2.e) artikuluari jarraiki, zuzendaritza-lanpostuak antolatzekeo baliabidean *“lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, haren derrigortasun-data”* jaso beharko dira.

-6. Aurreproiektuaren 43.1.g) artikuluan xedatzen denez, lanpostuen zerrendek nahitaez adieraziko dute lanpostu bakoitzaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala behar izanez gero, derrigortasun-data. Artikuluaren hirugarren paragrafoaren arabera, behin-behineko langileentzako lanpostuen zerrendek ere jasoko dute informazio hori.

-7. Aurreproiektuaren 70.2.i) artikulua arabera, euskal administrazio publikoek eta euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek, funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak hautatzeko prozeduretan, *“edozein hizkuntza ofizial erabiltzea bermatuko”* dute.

-8. Aurreproiektuaren 71.2 artikuluan jasotzen denez, *“euskal administrazio publikoek, deialdi bakoitzean, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen dotazio-kopuruaren berri emango dute, lanpostuen zerrendetan edo antzeko baliabideetan ezarritakoarekin bat etorritik. Horietan sartzeko nahitaezko betekizuna izango da deitutako lanpostuan jarduteko behar besteko hizkuntza-gaitasuna egiaztatzea. Deialdien oinarrietan berezitu da zein plaza-kopuruk duen derrigortasun-data igarota duen hizkuntza-eskakizuna, eta, gainerako plaza kopuruetan, euskara jakitea baliotsiko da merezimendu gisa”*.

-9. Aurreproiektuaren 71.4 artikuluan jasotzen denez, *“hautaketa-prozesua amaitu ondoren, eskatutako betekizunak (hizkuntza-eskakizuna barne, derrigorrezkoa balitz) betetzen dituzten hautagaien artean atxikiko dira langileak, hautagai bakoitzak lortutako puntuazioaren eta adierazitako lehentasunen arabera. Hainbat destinotan sartzeko eskatutako betekizunak betetzeak ez du ezein kasutan hautagaiak egiaztatuta duen betekizunen bat beharrezkoa ez duten lanpostuak aukeratzeko duen eskubidea murriztuko”*.

-10. Aurreproiektuaren 78.1.e) artikuluan ageri denez, hautaketa-prozesuetako deialdi-oinarrietan jasoko da *“zer hizkuntza-eskakizun duten deitutako lanpostuak, berariaz adieraziz zein den lanpostuen derrigortasun-data, lanpostu-zerrendan horri buruz jasotakoaren arabera”*. Informazio hori jaso beharko da aldi baterako enpleguko plazak betetzeko prozesuetan ere, artikuluko bigarren paragrafoan zehazten den bezala.

-11. Aurreproiektuaren 80.2.k) artikularen arabera, hautaketa-prozesuak garatzeko euskal administrazio publikoek erabil ditzaketen hautaketa-baliabideen artean daude *“hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak”*.

-12. Aurreproiektuaren 100.1.e) artikuluari jarraiki, lanpostuak hartzeko lehiaketetan euskararen ezagutza-maila baloratuko da, *“euskara jakitea bete beharreko baldintza ez bada”*. Gure ustez hau moldatu beharko litzateke, eta aukera libre utzi derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak hornitzeko lehiaketetan ere euskara maila altuagoak meritu gisa baloratu ahal izan daitezen, deialdian zehaztutakoaren arabera.

Izan ere, lanpostura sartzeko ezinbesteko baldintza prestakuntza akademiko zehatz bat duten lanpostuak hornitzeko deialdi askotan meritu moduan baloratzen dira maila akademiko altuagoko ezagutzak, balio erantsi bat ematen baitiote hautagaiari lanpostuan aritzeko orduan, eta uste dugu berdin jokatzeko aukera utzi beharko litzatekeela euskararen kasuan, betiere dagokion erakundeak erabakitzen duenaren arabera, derrigorrezko euskara mailatik gorakoa izatea positiboa eta baloratzekoa izan baitaiteke lanpostu askotan.

-13. Aurreproiektuaren 167.1.f) artikuluan jasotzen denez, euskal enplegatu publikoek jardutean bete beharreko printzipioen artean dago *“kultura-ingurunea sustatzea, bereziki euskara zainduta; hargatik eragotzi gabe herritarrei eurek aukeratzeko duen hizkuntzan erantzutea”*.

-14. Aurreproiektuaren 168.h) artikuluan jasotzen denez, euskal enplegatu publikoek euren eginkizunak betetzerakoan bete beharreko jokabide-kodeko printzipioen artean hauxe dago: *“enplegatu publikoek euskararen erabilera sustatuko dute euskal administrazio publikoetan; dena den, herritarrak aukeratzeko duen hizkuntzan erantzungo dute”*.

-15. Aurreproiektuaren 169.ñ) artikuluari jarraiki, euskal enplegatu publikoen betebeharra da *“herritarrei euskaraz zein gaztelaniaz erantzutea, horretarako hizkuntza-politikari buruz onartzen diren arauen arabera, eta lege honen XIII. Tituluan xedatutakoa kontuan hartuta”*.

-16. Aurreproiektuaren 181.b) artikuluan xedatzen denez, falta oso astuna da, hizkuntza dela eta, bereizkeria dakarren edozein ekintza egitea.

-17. Aurreproiektuaren XIII. tituluak “*Hizkuntza normalizazioa*” du izenburu, 190 eta 193 bitarteko artikulua bilduz. Bertan, 190. artikuluan “*Euskararen erabilera normalizatzeko plana*” arautzen da, eta bere edukia osatuz honela uzteko proposatzen dugu:

“190. artikulua.- Hizkuntza eskakizunak eta euskararen erabilera normalizatzeko planak.

1. Euskara eta gaztelania dira euskal administrazio publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute administrazio horiek barneko zein kanpoko harremanetan.

2. Euskal administrazio publikoek ahaleginak egingo dituzte mendean dituzten langileek hizkuntzak ikas ditzaten, beharrezko neurriak hartuz horretarako, euren esparruan euskararen erabilera sustatzeko xedez.

3. Enplegatu publikoek arreta bermatuko diote herritarrei honek eskatutako hizkuntza ofizialean, eta herritarrei euren hizkuntza eskubideak erabiltzea erraztuko diete.

4. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak berariaz ezarritako irizpideei jarraituz, euskal administrazio publikoek, euren erakundeek eta organismoek euskararen erabilera normalizatzeko plana onartuko dute, eta, plan horietan, plangintzaldi bakoitzerako helburuak, neurriak eta bitartekoak finkatuko dituzte.

4.1. Ildo horretatik, euskararen erabilera normalizatzeko ezarritako helburuak betetzeko, euskararen erabilera normalizatzeko planetan adierazten da zein den erakundearen hizkuntza-politika. Plan horietan, gutxienez, honako zehaztapen hauek jaso behar dira:

a) Zein den euskararen egoera erakundearen, zehatz adieraziz zein hizkuntza-eskakizun esleitu zaien lanpostuei, eta, edukiz gero, zein den haien derrigortasun-data. Era berean, adierazi beharko da zein den langileen euskara-maila, eta euskara ikasteko prozesuari buruzko informazioa.

b) Zer administrazio-atal proposatzen den atal elebidun eta euskara-atal izateko, erakundearen hizkuntza-helburuen arabera; zehatz adieraziz zein lanpostu dagoen atal bakoitzean, eta zeini jarriko edo aldatuko zaion derrigortasun-data.

c) Zer neurri aurreikusten diren administrazio-atal elebidunek eta euskara-atale funtziona dezaten, eta bereziki noiz eta nola erabili behar den euskara herritarrekin eta beste erakunde batzuekin ahozko eta idatzizko harremanetan; noiz eta nola erabili ekitaldi publikoetan, argitalpenetan eta hizkuntza-paisaian, baita ezarritako helburuak betetzeko erakunde bakoitzak begiz jotzen dituen jarduera-esparruetan ere.

d) Kontratazio arloan aurreikusten diren neurriak, eta bereziki zer neurri aurreikusten diren bermatzeko dagokion administrazioak bete beharko lituzkeen hizkuntza-baldintza beretan edo antzekoetan emango dituztela hirugarrenek zerbitzu publikoak, erabiltzaileekin harreman zuzenak edukitzea eskatzen dituztenak, euskal administrazio publikoek ondasunak eta zerbitzuak jasotzean bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko neurriak kaltetu gabe.

Kontratuen dokumentu guztiak bi hizkuntza ofizialean egongo dira, balizko lizitzaileek eta gainerako interesatuek erabili ahal izan ditzaten.

Kontratuaren funtsezko betekizun gisa hartuko da bi hizkuntza ofizialen erabilpena eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideekiko errespetua. Halaber, betekizun horiek ez betetzearen ondorioz dagozkion zigorrak ezarri eta, are gehiago, kontratua bertan behera utzi ahal izango da.

Sektore publikoko erakundeek areagotuko dute kontratazio-jardueran euskara erabiltzearen garrantzia, kaudimen teknikoaren eta profesionalaren betekizun, esleipen-irizpide edo betearazteko baldintza gisa jasoz, eta erabat errespetatuko dituzte indarrean dauden legeak, bereziki helburuarekiko proportzionaltasun- eta lotura-printzipioak.

4.2. Hizkuntza politika gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak derrigorrezko txostena emango du, normalizazio plan proposamenei buruz. Txosten horrek, proposamenak euskararen erabileraren normalizazioan duen eragina eta hizkuntzaren alorrean indarrean dauden arauetako egokitzapena aztertuko du.

4.3. Hizkuntza politika gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak txostena igorriko dio Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari, plangintzaldi bakoitzaren hirugarren urtea betetakoan eta plangintzaldia amaitutakoan, hizkuntza normalizazio prozesuan herri administrazio, erakunde eta organismo bakoitzerako ezarritako helburuak zein neurritan bete diren ebalua dezan.

Aipatutako jarraipen horren ondorioz hizkuntza normalizazio prozesuan atzerapenak edo zailtasunak daudela ikusiz gero, hizkuntza politika gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, eragindako herri administrazio, erakunde edo organismoarekin lankidetzan, egoera zuzentzeko hartu beharreko neurriak aztertuko ditu.

Herri administrazioek, erakundeek eta organismoek, euren enplegatu publikoei buruzko informazioa bidaliko diote hizkuntza politikan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu beharreko txostenak egin dituzan. Zehazki, datu hauek bidaliko dira: lanpostu zerrendako lanpostu bakoitzeko enplegatu publiko jabeen eta behin behinekoen identifikazioa; izen-abizenak; jaiotze data; nortasun agiriaren, pasaportearen edo bizitoki-txartelaren zenbakia, eta sexua. Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin bat, datu horiek hizkuntza politika gaietan eskumena duen sailak kudeatutako fitxategi automatizatu batean erregistratuko dira.

5. Hizkuntza-eskakizuna esleituko zaie euskal administrazio publiko, erakunde eta organismoetako lanpostu guztiei; hizkuntza-eskakizuna esleitzeko, kontuan izango da zeintzuk diren lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta komunikazio-premiak, eta zein hizkuntza-trebetasun maila behar den helburu horietarako.

6. Lanpostua hornitzeko eta bertan jarduteko behar den euskara-maila adierazten du hizkuntza-eskakizunak. Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den artean, bakarrik balioko du zehazteko zer balio eman behar zaion euskara jakiteari merezimendu gisa, bai lanpostuak hornitzeko, bai kanpo-hautaketak egiteko.

7. Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna bete egin beharko da dagokion lanpostura iristeko eta bertan jarduteko. Halere, Eusko Jaurlaritzak, hizkuntza politika gaietan eskumena duen sailak proposatuta, erregelamenduz zehaztuko du zein kasutan, salbuespenez eta inguruabar objektiboak tarteko, lanpostu bateko titularra jabetzan daukan lanpostuko hizkuntza eskakizuna betetzetik salbuets daitekeen, eta salbuespena bakarrik aplikatuko da jabetzan daukan lanpostuari dagokionez.

8. Eusko Jaurlaritzak, hizkuntza politika gaietan eskumena duen sailak proposatuta, hizkuntza eskakizunak zehaztuko ditu, baita euren sailkapena eta ezaugarriak ere, eta aldiro-aldiro, berriz, euskal herri administrazio, erakunde eta organismoetako lanpostuei aplikatzeko irizpideak.

9. Kasuan-kasuko gobernu-organoei esleituko dituzte euskal administrazio publikoetako eta haien erakunde eta organismoetako lanpostu guztien hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak, artikulua honetan azaltzen diren irizpideen arabera, hizkuntza politika gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren derrigorrezko txostena jaso ondoren.

Nolanahi ere, derrigortasun-data izan behar duten lanpostuak zehazteko orduan, kontuan izan beharko dira administrazio, erakunde eta organismo bakoitzak bere euskararen erabilera normalizatzeko planean finkatutako helburuak, eta zuzen eta proportzionalki jokatu beharko da egon dauden lanpostu guztiekin, kontuan izan gabe zein kidego, eskala, maila edo sailkapen-talderi dauden atxikita.

10. Lanpostuaren zehaztapenen artean jasoko dira hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data ere, lege honetan ezarritakoaren arabera.”

“Artículo 190.- Perfiles lingüísticos y planes de normalización del uso del euskera.

1. El euskera y el castellano son las lenguas oficiales en las Administraciones Públicas Vascas, y éstas vendrán obligadas a garantizar en sus relaciones, tanto internas como externas, la utilización de ambas.

2. Las Administraciones Públicas Vascas procurarán la adecuada capacitación lingüística del personal a su servicio, adoptando las medidas necesarias para ello, con el fin de impulsar el uso del euskera en el ámbito de las mismas.

3. Los empleados públicos garantizarán la atención al ciudadano en la lengua oficial que solicite, y facilitarán a los ciudadanos el ejercicio de sus derechos lingüísticos.

4. A tal fin, en el marco de los criterios que establezca el Gobierno Vasco al efecto, las Administraciones Públicas Vascas, sus instituciones y organismos, aprobarán su correspondiente Plan de Normalización del Uso del Euskera, donde fijarán, para cada periodo de planificación, los objetivos a alcanzar, las medidas a adoptar y los medios a proveer.

4.1. A este respecto, los Planes de Normalización del Uso del Euskera constituyen la formulación de la política lingüística de la entidad en orden al cumplimiento de los objetivos de normalización establecidos, debiendo recoger, al menos, las siguientes determinaciones:

a) La situación lingüística actualizada de la entidad con detalle de los perfiles lingüísticos asignados y, en su caso, fechas de preceptividad de los diferentes puestos de trabajo, así como el grado de conocimiento del euskera e información relativa al proceso de capacitación lingüística del personal.

b) La propuesta de unidades administrativas bilingües y en euskera que se vayan a crear, dependiendo de los objetivos lingüísticos de la entidad, con detalle de los puestos de trabajo que los integren, perfiles lingüísticos preceptivos que se vayan a establecer o, en su caso, modificar.

c) Medidas contempladas para el funcionamiento de las unidades administrativas bilingües y las unidades administrativas en euskera, en particular, tratamiento del euskera en las relaciones orales y escritas con los administrados y con otras instituciones, en los actos públicos, en materia de publicaciones, en materia de paisaje lingüístico y en aquellos campos de actuación que cada entidad determine para el cumplimiento de los objetivos establecidos.

d) Medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceros sean prestados a los ciudadanos en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente, sin perjuicio de las medidas encaminadas a garantizar el uso de ambas lenguas oficiales en la recepción por parte de las Administraciones Públicas Vascas de bienes y servicios.

Todos los documentos contractuales deberán estar disponibles para los potenciales licitadores y demás interesados en ambas lenguas oficiales.

El uso de ambas lenguas oficiales y el respeto de los derechos lingüísticos de las personas usuarias se considerará obligación contractual, en su caso, de carácter esencial, pudiendo conllevar su incumplimiento las correspondientes penalidades e, incluso, la resolución del contrato.

Las entidades del sector público incrementarán la relevancia del uso del euskera en la actividad contractual, introduciéndolo como requisito de solvencia técnica y profesional, criterio de adjudicación o condición de ejecución, siempre con pleno respeto a la legislación aplicable, en especial a los principios de proporcionalidad y vinculación al objeto.

4.2. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política lingüística emitirá informe preceptivo sobre las propuestas de plan de normalización. Dicho informe versará sobre la incidencia de la propuesta en la normalización del uso del euskera y sobre su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística.

4.3. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política lingüística elevará informe al Consejo del Gobierno Vasco, al cumplirse el tercer año y al final de cada periodo de planificación, con objeto de que por éste se evalúe el grado de cumplimiento de los objetivos fijados para cada Administración Pública, institución y organismo, en el proceso de normalización lingüística.

Si como consecuencia del mencionado seguimiento se detectaran retrasos o dificultades en el proceso de normalización lingüística, el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política lingüística, en colaboración con la Administración Pública, institución u organismo afectado, estudiará las medidas pertinentes para su subsanación.

Las Administraciones Públicas Vascas, sus instituciones y organismos, facilitarán al departamento competente en materia de política lingüística la necesaria información sobre sus empleados públicos, a efectos de que elabore los informes que elevará al Consejo del Gobierno Vasco. En concreto, se facilitarán los siguientes datos: identificación de los empleados públicos titulares y ocupantes temporales de cada puesto de la relación de puestos de trabajo; nombre y apellidos; fecha de nacimiento; número de documento de identidad, pasaporte o tarjeta de residencia, y sexo. De conformidad con la normativa sobre protección de datos personales, los datos citados se registrarán en un fichero automatizado que gestionará el departamento competente en materia de política lingüística.

5. Todos los puestos de trabajo existentes en las Administraciones Públicas Vascas, sus instituciones y organismos, tendrán asignado su correspondiente perfil lingüístico, determinado según las características y necesidades comunicativas atribuidas a dichos puestos de trabajo y a las destrezas lingüísticas exigibles a dicho fin.

6. El perfil lingüístico determinará el conjunto de los niveles de competencia lingüística en euskera necesarios para la provisión y desempeño del puesto de trabajo. En tanto el perfil lingüístico no fuera preceptivo, servirá exclusivamente para determinar la valoración que, como mérito, habrá de otorgarse al conocimiento del euskera, tanto en la provisión de puestos de trabajo como en la selección externa.

7. A partir de su fecha de preceptividad, el cumplimiento del perfil lingüístico se constituirá como exigencia obligatoria para el acceso y desempeño del correspondiente puesto de trabajo. Ello no obstante, el Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de política lingüística, determinará reglamentariamente los supuestos en que, con carácter excepcional y por circunstancias objetivamente apreciables, el titular de un puesto de trabajo pueda ser eximido del cumplimiento del perfil asignado al mismo, siendo aplicable la exención únicamente respecto al puesto del que es titular.

8. El Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de política lingüística, determinará los perfiles lingüísticos así como la clasificación y características de los mismos y, periódicamente, los criterios para su aplicación a los distintos puestos de trabajo de las Administraciones Públicas Vascas, sus instituciones y organismos.

9. La asignación del perfil lingüístico a cada uno de los puestos de trabajo existentes en las Administraciones Públicas Vascas, sus instituciones y organismos, así como su fecha de preceptividad, se efectuará por sus respectivos órganos de gobierno de conformidad con los criterios a los que se refiere este artículo, previo informe preceptivo del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de política lingüística.

En todo caso, para determinar los puestos de trabajo a los que corresponde señalar fecha de preceptividad, se tendrán en cuenta necesariamente los objetivos fijados por cada Administración Pública, institución y organismo en su correspondiente Plan de Normalización del Uso del Euskera, debiendo igualmente procurarse un tratamiento equitativo y proporcional para los puestos de trabajo existentes, con independencia del Cuerpo, Escala, Nivel o Grupo de Clasificación al que resultan adscritos dichos puestos.

10. Tanto el perfil lingüístico como, en su caso, la fecha de preceptividad, deberán quedar incorporados dentro de las especificaciones del puesto de trabajo conforme a lo previsto en la presente ley.”

Izenburu berria proposatzen dugu 190. artikuluko honetarako, hizkuntza eskakizunen aipamena txertatuz, iruditzen baitzaigu honela hobeto islatzen duela zein den edukia.

Aurreproiektuaren 190. artikuluko hirugarren paragrafoa berria da, eta proposatzen dugu azpimarratzeko edo gogorarazteko enplegatu publikoen betebeharrak dela herritarrei arreta euskaraz nahiz gaztelaniaz bermatzea.

Aurreproiektuaren 190.4.1.d) artikuluan kontratazio arloko neurriei buruzko aurreikuspenak zehaztu eta garatu nahi izan ditugu, bertan txertatuz Eusko Legebiltzarrak aurtengo martxoaren 28an onetsitako 56/2014 Legez besteko Proposamenean, administrazio-kontratu publikoetako gutun-azaletan eta berariazko klausula administratiboetan hizkuntza-klausulak jartzeari buruz, jasotako zenbait aipamen.

Aurreproiektuaren 190.4.2 eta 3 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretutik ateratako hainbat kontu (6. eta 19.2 artikuluko) txertatzeko proposatzen dugu, hizkuntza politika gaitan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak normalizazio plan proposamenei buruzko derrigorrezko txostena emango duela, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari aldiro-aldi planen betetze mailari buruzko txostenak aurkeztuko dizkiola xedatzeko, garrantzitsutzat jotzen baitugu zeregin horiek lege mailako arau batean jasotzea.

Aurreproiektuaren 190.4.3 artikuluko azken letrazko proposatzen dugun testuak, herri administrazio, erakunde eta organismoek euren enplegatu publikoek buruzko informazioa hizkuntza politikan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari bidali beharri buruzko zatian, gaur egun daukagun arazo bati irtenbidea eman nahi dio. Izan ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak txostenak egin behar dituela une zehatz batzuetan, euskararen erabileraren normalizazio

prozesuaren gainean, hala nola 6., 19. edo 23. artikuluetan. Bere zeregin horiek betetzeko, euskal herri administrazioek bidalitako datu pertsonalak jaso izan ditu historikoki sailburuordetza horrek inolako arazo barik, baina datu pertsonalen babesari buruzko araudiak azken urteotan irabazi duen garrantzia eta oihartzunaren eraginez, erakunde batzuek uko egiten diote azken boladan sailburuordetzari bere zereginak betetzeko ezinbesteko dituen datuak igortzeari. Egoera hori zuzendu guran, eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 11.2.a) artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, beharrezkoa da lege batek jasotzea datu pertsonalen lagapen horiek egingo direla. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak uztailaren 6ko 6/1989 Legea garatu zuenez, eta orain aztergai dugun Lege Aurreproiektuak lege hori ordeztuko duela gogoan hartuta, uste dugu Aurreproiektua dela toki aproposa datu pertsonalen lagapen horiek aurreikusteko.

Aurreproiektuaren 190. artikulua 6. eta 7. paragrafoak bateratzeko proposamena egin dugu, 7. paragrafo gisa lagaz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.3 artikuluan jasotakoaren ildotik, derrigortasun datatik aurrera hizkuntza eskakizuna egiaztatzea ezinbestekoa izango dela adieraziz hasieran, baina hizkuntza-eskakizuna egiaztatetik salbuesteko aukera egongo dela jasoz ondoren, lanpostuaren jabea den enplegatu publikoaren kasuan, eta jabetzan daukan eta betetzen ari den lanpostuari dagokionez. Halaber, ezabatu dugu desgaitasunen aipamena, indarrean mantentzeko gaur egun apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 42. eta hurrengo artikuluetan jasotako arauketa, eta zehaztu salbuespenak hizkuntza politika gaietan eskumena duen sailak proposatuta Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez arautuko dituela, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.3 artikuluko ereduari jarraituz. Izan ere, kontuan hartu behar dugu egoera soziolinguistikoa etengabe ari dela aldatzen Euskal Autonomia Erkidegoan, gero eta handiagoa dela elebidunen pisua gizartean, eta horregatik komeni da derrigorrezko hizkuntza eskakizunak betetzetik salbuesteari buruzko arauketa dekretu mailako arau batean egotea, legea baino malguagoa baita araudia aldiro-aldiro gizartearen bilakaerari egokitu ahal izateko.

Aurreproiektuaren 190.8 artikulua idazketa hobetzen saiatu gara, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.4 artikuluan jasotakoa eredu hartuta.

Aurreproiektuaren 190.9 artikulua osatu dugu, funtsezkoa begitantzen baitzaigu azpimarratzea hizkuntza politika gaietan eskumena duen sailak aurretiazko txostena eman behar duela beti, lanpostuei hizkuntza eskakizuna edo derrigortasun data ezartzeko erabakia hartu baino lehen, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5 artikuluan jasotakoa eredu hartuta.

-18. Aurreproiektuaren 191. artikulua “*Hizkuntza-eskakizunak*” du izenburu, eta bere edukia osatuz honela uzteko proposatzen dugu:

“191. artikulua.- Euskara hautaketa-prozesuetan.

1. Euskal administrazio publikoen zerbitzura iristeko hautaketa-prozesuen deialdietako edukiak bat etorri behar du langile sartu berriek bete beharko dituzten lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunekin.
2. Aurreko puntuan ezarritakoaren ondorioetarako, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu baterako plaza bat ateratzen bada deialdira, hizkuntza-eskakizun hori bete egin beharko da lanpostu horretara iristeko. Deialdiaren oinarrietan zehazten denaren

arabera, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izango da egiaztagiri bat aurkeztuz edo berariazko proba bat eginez prozesuaren barruan.

3. Hautaketa-prozesuetan inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzerik ez dagoenean, merezimenduzat joko da euskaraz jakitea.

Horren balioa ezartzeko, kontuan izango da zer hizkuntza-eskakizun esleitu zaien nagusiki lanpostua atxikita dagoen kidego edo eskalako lanpostu guztiei; horren portzentajea, bestalde, ezingo da izan hautaketa-prozesuaren beste zati guztietan batera gehienez lor daitekeen puntuazio osoaren ehuneko bost baino txikiagoa, ezta ehuneko hogeia baino handiagoa ere.

Hizkuntza-eskakizun nagusia zehazteko, dena delako deialdian ez bada sartzen eskala edo aukerei atxikitako lanposturik, kontuan hartuko da zein kidegotakoak diren deitutako lanpostuak.

4. Artikulu honetan adierazitako irizpide horiek, halaber, euskal administrazio publikoetako postuak hornitzeko prozesuetan aplikatu beharko dira.”

“Artículo 191.- El euskera en los procesos selectivos.

1. El contenido de las convocatorias de procesos selectivos para el acceso al servicio de las Administraciones Públicas Vascas se adecuará a los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo que hubieran de proveerse con el personal de nuevo ingreso.

2. A los efectos previstos en el punto anterior, cuando la convocatoria de una plaza tenga su causa en un puesto de trabajo cuyo perfil lingüístico sea preceptivo, el cumplimiento del mismo será exigencia obligatoria para el acceso. El cumplimiento del perfil podrá acreditarse, según se determine en las bases de la convocatoria, tanto mediante su previa acreditación documental como mediante una prueba específica dentro del proceso.

3. Cuando no fuera exigible el cumplimiento de perfil lingüístico alguno en los procesos selectivos, el conocimiento del euskera será considerado como mérito.

Su valoración se establecerá en función del perfil lingüístico predominante entre los asignados al conjunto de los puestos de trabajo que sean susceptibles de desempeño por la Escala u Opción a la que la plaza se encuentre adscrita, y representará un porcentaje que no podrá ser inferior en ningún caso al cinco por ciento ni superior al veinte por ciento de la puntuación máxima alcanzable en el resto del proceso selectivo.

A los efectos de determinar el perfil lingüístico predominante, si la convocatoria en cuestión incluyera puestos no adscritos a Escalas u Opciones, se tomará como referencia el Cuerpo al que pertenecen los puestos convocados.

4. Los anteriores criterios del presente artículo serán igualmente de aplicación en los procesos de provisión de puestos de las Administraciones Públicas Vascas.”

Izenburu berria proposatzen dugu 191. artikuluko honetarako, iruditzen baitzaigu honela hobeto islatzen duela zein den edukia, eta hizkuntza eskakizunen aipamena 190. artikulurako uztea egokiagoa begitantzen zaigulako.

Aurreproiektuaren 191.2 artikuluen idazketa hobetzen ahalegindu gara, garbi uzteko hautagaiek hizkuntza-eskakizuna bi eratan egiaztatu ahal izango dutela, egiaztagiri bat aurkeztuz edo berariazko proba bat eginez prozesuaren barruan.

-19. Aurreproiektuaren 192. artikulua *“Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko dituen funtzioak”* du izenburu, bere edukia hauxe izanik:

“192. artikulua.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko dituen funtzioak.

1. Hizkuntza-eskakizunak betetzen direla egiaztatzeari begira, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak euskararen ezagutza ebaluatzeko proben edukia eta forma erabakiko ditu kasu bakoitzerako, eta administrazio publiko guztietan aplikatuko dira nahitaez.
2. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea organismo bakarra izango da, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko gaituta dagoena. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen erantzukizuna izango da, bai euskal administrazio publikoetan eta haien erakunde eta organismoetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak antolatzea, bai aldiari-aldiari proba horien deialdia egitea.
3. Halaber, euskal administrazio publikoek eta haien erakunde eta organismoek lanpostuak hornitzeko eta langileak hautatzeko prozesuen deialdiak egiten dituztenean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea arduratuko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko egin beharreko proba guztiak egiteaz.
4. Euskal administrazio publikoetara eta haien erakunde eta organismoetara iristeko hautaketa-prozesuetako kalifikazio-mahaietan egon behar den Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari gaitza, deialdiari eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetan ere, erakunde horretako beste ordezkari bat egongo da epaimahaian. Ordezkaritza hori nahitaezkoa izango da, era berean, lanpostuak hornitzeko lehiaketetako kalifikazio-batzordeen osan.
5. Euskal administrazio publikoek lankidetzaren hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin, zehazteko zein baldintzatan egin beharko diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak.”

“Artículo 192.- Funciones del Instituto Vasco de Administración Pública en la acreditación de los perfiles lingüísticos.

1. Para la acreditación del cumplimiento de los distintos perfiles lingüísticos, el Instituto Vasco de Administración Pública determinará el contenido y forma de las pruebas destinadas a la evaluación del conocimiento del euskera necesario, en cada caso, que serán de común y obligada aplicación en la totalidad de las Administraciones Públicas.
2. El Instituto Vasco de Administración Pública será el único organismo habilitado para la acreditación de perfiles lingüísticos. A tal efecto, el Instituto Vasco de Administración Pública asumirá la responsabilidad de llevar a cabo la convocatoria periódica y organización de pruebas destinadas a la acreditación de perfiles lingüísticos en el seno de las Administraciones Públicas vascas, sus instituciones y organismos.
3. Asimismo, el Instituto Vasco de Administración Pública llevará a efecto la realización de las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos que resulten precisas en el marco de los procesos de selección de personal y de provisión de puestos de trabajo que puedan convocar las Administraciones Públicas vascas, sus instituciones y organismos.
4. Sin perjuicio de la representación que al Instituto Vasco de Administración Pública corresponde en los tribunales calificadoros de los procesos selectivos de acceso a las Administraciones Públicas vascas, sus instituciones y organismos, una persona representante de dicho Instituto formará parte de los mismos en aquellas pruebas que estén destinadas a la acreditación del perfil lingüístico exigido en la convocatoria. Dicha representación será igualmente obligada, a los mismos efectos, en la composición de las comisiones calificadoras de los concursos para la provisión de los puestos de trabajo.
5. Las Administraciones Públicas vascas podrán suscribir convenios de colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública vasca al objeto de concretar los

términos en los que deban desarrollarse las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos.”

-20. Aurreproiektuaren testuan 192bis artikulua berria txertatzeko proposatzen dugu, iruditzen baitzaigu beharrezkoa dela legeak hizkuntza normalizazioari eskainitako titulu batean Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) funtzioak jasotzea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearenarenak jasotzen diren modu berean. Hortaz, Aurreproiektuan 192bis artikulua berria sartzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

“192bis artikulua.- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) funtzioak Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen euskalduntze prozesuan.

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan pertsona helduen euskalduntze gaietan organismo eskuduna denez gero, titulu honetan aurreikusitako helburuei begira HABE izango da erakunde gaitua euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileen hizkuntza-gaitasunari dagozkion beharrezkoak asetzeko behar diren euskalduntze-prestakuntza jarduerak sustatzeko eta antolatzeko.

2. Ildo horretatik, HABEk diseinatuko du euskara ikasteko prozesuaren eduki kurrikularra.

3. Era berean, HABEk antolatuko ditu titulu honetan jasotako helburuak betetzeko behar diren prestakuntza jarduerak guztiak, bere baliabideekin eta bestelakoekin, eta jarduerak horien garapena ikuskatuko du.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ahalbidetzeko, HABEk lankidetzak-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin eta gai honen gainean eskuduntza duen beste edozein administrazio publikorekin, aipatu prestakuntza jarduerak zein baldintzatan gauzatuko diren zehaztearren.”

“Artículo 192bis.- Funciones del Instituto para la Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos (HABE) en la euskaldunización del personal al servicio de las Administraciones Públicas Vascas.

1. En su calidad de organismo competente en materia de euskaldunización de las personas adultas en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca, a los fines previstos en el presente título, HABE será el organismo habilitado para la promoción y organización de las actividades formativas de euskaldunización que resulten necesarias para satisfacer las necesidades de capacitación lingüística del personal al servicio de las administraciones públicas vascas.

2. En ese sentido, HABE diseñará el contenido curricular del proceso de aprendizaje del euskera.

3. Asimismo, HABE organizará, con medios propios y ajenos, la impartición de todas las actividades formativas necesarias para el cumplimiento de los fines previstos en este título, y supervisará el desarrollo de las mismas.

4. Para el cumplimiento de lo dispuesto en este artículo, HABE podrá suscribir convenios de colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública y con las demás administraciones públicas con competencia en la materia, al objeto de concretar los términos en que se llevarán a cabo las actividades formativas mencionadas.”

-21. Aurreproiektuaren 193. artikulua “*Baliozkotzea eta euskararen ezagutza egiaztatzeko beste sistema batzuk*” du izenburu, bere edukia hauxe izanik:

“193. artikulua.- Baliokidetzak eta euskararen ezagutza egiaztatzeke beste sistema batzuk.

Hizkuntza politika gaietan eskumena duen sailaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz ezarriko du ziurtagiri ofizialak, tituluak eta euskararen ezaguera frogatzeko eta ebaluatzeko beste sistemak baliokidetzeko araubidea, euskal administrazio publikoetan lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunak betetzen direla egiaztatzeari begira.”

“Artículo 193.- La convalidación y otros sistemas de acreditación del conocimiento del euskera.

El Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de política lingüística, establecerá reglamentariamente el régimen de convalidación de certificados oficiales, títulos y otros sistemas de comprobación y evaluación del conocimiento del euskera, a los efectos de acreditar en las Administraciones Públicas vascas el cumplimiento de los perfiles lingüísticos asignados a los distintos puestos de trabajo.”

-22. Aurreproiektuaren hamabost xedapen iragankorren jasotzen denez, legearen “190.7 artikuluan aurreikusitakoaz gain, lanpostuaren derrigortasun-data igaro eta gero, enplegatu publikoa salbuetsi ahal izango da jabetzan duen lanpostuaren hizkuntza-profila egiaztatzetik, baldin eta berrogeita bost urte beteta baditu lege hau indarrean sartzen denean”.

Xedapen iragankor hau ezabatu beharko litzatekeela uste dugu, Aurreproiektuaren 190.7 artikulurako proposatu dugun testua onartuz gero behintzat, kasu honetan ez bailuke zentzurik izango, kontuan hartuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna betetzetik salbuesteko aukerak ez direla legean arautuko, erregelamendu batean baizik.

-23. Aurreproiektuaren eranskineko 6. artikulua “Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko funtzionarioen eskalak sailkatzea” du izenburu, eta goi-mailako kidego bereziaren barruan hizkuntza normalizaziorako eskala dago, oinarritzko funtzioak izanik “hizkuntza-plangintza egitea, euskara-planak kudeatu, landu eta sustatzea eta horretarako irizpideak ezartzea eta aholkatzea; hizkuntza normalizazioaren esparruan ezagutzak ebaluatzea, jarduerak kudeatzea, prestakuntza diseinatzea eta kontrola eta ikuskapena egitea”. Eskalan sartzeko eskatzen den titulazioa, A1 azpitalderako gaitzen duen edozein izan daiteke.

-24. Aurreproiektuaren eranskineko 6. artikulua arabera, eta goi-mailako kidego bereziaren barruan, itzulpen-eskala dago, oinarritzko funtzioak izanik “itzulpena, interpretazioa eta euskarazko terminologiako lanak egitea eta esparru horietan prestakuntza ematea, azterlanak egitea, irizpideak ezartzea eta ikuskapen-lanak egitea ere”. Eskalan sartzeko eskatzen den titulazioa, A1 azpitalderako gaitzen duen edozein.

-25. Aurreproiektuaren eranskineko 6. artikulua arabera, eta teknikarien kidego bereziaren barruan, hizkuntza normalizaziorako eskala dago, oinarritzko funtzioak izanik “euskara-planak kudeatu, landu eta sustatzeko eta aholkatzeko eginkizun teknikoak betetzea; hizkuntza normalizazioaren eta plangintzaren esparruan ezagutzak ebaluatzea, jarduerak kudeatzea, prestakuntza diseinatzea eta kontrola eta ikuskapena egitea”. Eskalan sartzeko eskatzen den titulazioa, A2 azpitalderako gaitzen duen edozein.

-26. Aurreproiektuaren eranskineko 6. artikulua arabera, eta teknikarien kidego bereziaren barruan, itzulpen-eskala dago, oinarrizko funtzioak izanik “*euskarazko itzulpen, interpretazio eta terminologiako eginkizun teknikoak betetzea eta esparru horietan prestakuntza ematea, azterketak egitea eta ikuskapen-lanak egitea*”. Eskalan sartzeko eskatzen den titulazioa, A2 azpitalderako gaitzen duen edozein.

-27. Aurreproiektuaren eranskineko 6. artikulua arabera, eta urgazle teknikoaren kidego bereziaren barruan, itzulpen-eskala dago, oinarrizko funtzioak izanik “*prestaketa eta laguntza eginkizunak betetzea itzulpenean, interpretazioan eta euskarazko terminologian, bai eta esparru horietan prestakuntza emateko, azterlanak egiteko eta ikuskapena egiteko lanetan ere*”. Eskalan sartzeko eskatzen den titulazioa, C1 azpitalderako gaitzen duen edozein.

Gauzak horrela, Euskal Enplegu Publikoaren Lege Aurreproiektua aztertuta, euskararen erabileraren normalizazioari begira positibotzat jotzen dut, betiere hemen jasotakoak aintzat hartzen badira.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko azaroaren 3an

Ángel Lobera Revilla
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria